


# STEEEILAS



## Irakaskuntza pribatua

Lege gordailua: BI-2729/00

2007ko maiatza

36. zenbakia

**ikasturte  
amaiera**

faltak  
notak  
kalitatea  
formakuntza  
gurasoak  
ebaluazioak  
azterketak  
irteerak  
errekuperazioak  
zaintzak  
zuzenketak  
liburuak aukeratu

**Ian**  
ihardunaldia

- Irakasleon lanaldia ● Kristau Eskolaren adierazpena ● Zenbat balio du DBH1 DBH2rekin ekiparatzea ● LOEren Batxilergoan berrikuntzak ● EPC: Hiritartasunerako Hezkuntza ● AZPkoen txokoa ● Kalitate prozesuak: Ian egiteko beste era baten alde ●

ARABA: Fuente de los Patos, 2, 3.C

BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)

GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)

NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)

01001 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ 944 10 02 98

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02

☎ 944 10 13 60

☎ 943 45 36 27

☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org

bizkaia@stee-eilas.org

gipuzkoa@stee-eilas.org

nafarroa@stee-eilas.org

## aurkibidea

### Irakaskuntza Pribatua

Irakasleon lanaldia	2
Kristau Eskolaren adierazpena	3
Zenbat balio du DBH1 DBH2rekin ekiparatzea?	3
LOEren Batxilergoan berrikuntzak	4
EPC: Hiritartasunerako Hezkuntza	5
AZPkoen txokoa	5
KALITATE PROZESUAK: Lan egiteko beste era baten alde	6
Berriak	7
Boletinak	8

# Irakasleon lanaldia

Irakasleon lanaldiaren gaia ez da, inolaz ere, erraz konponduko den gaia, sektorean dauden egoera ezberdinak direla medio. Ikastetxe batzutan arazoa ikusi ere ez dute egin eta beste zenbaitetan, berriz, presioa gero eta nabariagoa da eta asteko 32 orduak 34 izaten ohi dira. Antzeko egoera gertatu da GMHZetako bigarren mailan Lanbide Heziketako ikastetxeetan.

Guk ez dugu arazo guztiak konponduko duen makiltxo magikorik. Bere garian pentsatu genuen horrelako gaia ezin zitekeela utzi ikastetxe bakoitzaren eskuetan; orokorra zen marko baten beharra ikusten genuen. Ulertzekoa da hainbat ikastetxek duten beldurra egoera orokorrenekin zerbait galtzen dutenean arautze prozesu horregatik. Dena den, hitzarmenek beti gutxienekoak ezartzen dituztela gogoratu behar da eta zabalik dago, beraz, ikastetxe bakoitzetatik egoera hori hobetzeko aukera, baldintzak ematen baldin badira.

Lanaldia argitzeko konpromisoa izan zen, hain zuzen ere, STEE-EILAS hitzarmenari baietz esateko eraman zuen arrazoietakoa bat. Konpromiso horren arabera, 2007ko ekainaren 30 baino lehen arautu behar da lanaldia, hiru puntuen inguruan:

- Asteko eta urteko lanaldiaren artean dagoen bat ez etortzea.
- Urteko lanaldi lektiboaren arautzea.
- Goi Mailako Heziketa Zikloko bigarren mailako irakasleen lanaldia, Prestakuntza Lantokietako orduak dituztenean.

STEE-EILASek beste gai bat eramango du: 55 urtekoentzat murrizketa lektiboa eta ikastetxeetan ez onartzeagatik gai honetaz azaldu diren arazoak.

Datorren ekainaren 5ean bilduko da Interpretatzeko Bitariko Batzordea gai honetaz eta beste zenbaitenaz irizpideak ezartzeko. Argibide gehiago jasoiko duzue!

Asteko/urteko lanaldiari dagokionez, STEE-EILASen irizpideak IBBrako oso argi daude. Eskola egutegiak 175 egun ditu, 35 aste eta 1.120 ordu asteko markoa (32 ordu) erreferentziatzen hartuta. Horrez gain, gutxienez beste 2 aste gehiago (12 edo 13 egun izan daitezke urtearen arabera) gehitu behar dugu irailaren hasieran eta ekainaren bukaeran lektiboak ez direnak. Guztira beste 64 ordu gehiago. Hitzarmeneko 25. artikulua ezartzen dituen 1.252 urteko orduetatik, 1.120 ordu baino gehiago betetzen ditugu, gure zorra gehienez 68 ordukoa delarik. Ikastetxe asko saiatzen dira ordu horiek uztaillaren lehengo hamabostaldian jartzen edota ikasturtean zehar sakabanatzen, 32 orduko markoa 34 orduetara pasatuz. STEE-EILASen usuez zitala da egiten den interpretazioa. Zenbait osagarritzko eginkizun (ebaluazio bilerak, ikastetxetik kanpoko ekintzak edo irteerak) ez dira kontuan hartzen zenbaketa horretan, hitzarmenean horrela ageri arren. Baina modu horretan ez dira kontuan hartzen ikastetxetik kanpo formatzen edo ohiko ihardurak egiten (azterketak zuzendu, programatu...) ematen ditugun orduak, gure osagarritzko orduak beste eginkizunetan (batik bat kalitate prozesuetan) galdu diren bitartean. Zenbatuz gero zorra haiena gurekiko litzateke. Hori guztia dela eta, ezin dezakete gure asteko lanaldia luzatu 32 ordu baino gehiagotik, ebaluazio garaia edo ikasleekin irteerak daudenean izan ezik ★



# Kristau Eskolaren adierazpena

J oan den martxoaren 20an *Kristau Eskolak* patronalak adierazpen bat egin zuen hitzarmeneko mahaian berau 10 hilabeteren ondoren bildu zenean. Adierazpen horretan *Kristau Eskolak* bere planteamendu orokorra azaldu zuen, hurrengo urteetako lan ildoak eta helburuak finkatuz. Apirilaren 3an adierazpen berbera egin zuten Hitzarmena sinatu zen egunean, aktari atxikituz. Hona hemen adierazpen horien nondik norakoak:

## 1. Planteamendu Orokorra

- Gizartea bizitzen ari den aldaketen aurrean, euskal hezkuntza sistemak gaurko nahiz etorkizuneko hezkuntza demandei aurre egiteko gai izan behar du.
- Euskal Hezkuntza Sistema hezkuntza eragile guztiek osatzen dute.
- Legezko markoa (bi sareena) gainditu beharra dago. Hezkuntza Lege baten beharra.
- Kalitatera da ardatza: hezkuntza proiektuena, gizarteak eskatzen duenari erantzunez.
- Hezkuntza sistema aitzindaria izan da arlo askotan, baina beste erronka berriak datoz.

## 2. Finantziarioa

- Kalitatea baliabideen bidez eskuratzen da. Horretan datza finantziarioaren garrantzia. Hau eskasa bada euskal gizartean izango du islada: garapen pertsonal, ekonomiko, kulturalen.
- Finantziarioaz Euskal Hezkuntza Sistema osoa hartuta hitz egin behar da.
- Ikastetxe guztiek zerbitzu bera eskaintzen diote gizarteari, beraz finantziario berbera. ("A igual servicio, igual financiación")
- Finantziario publikoarekin gardentasunerako konpromisoa: "todos somos corresponsables del adecuado destino de los fondos públicos".
- Finantziarioak ikastetxearen beharrak asetu behar ditu, ekitatea eta berdintasuna sustatzeko.
- Gaurko finantziario markoa oso eskasa da. 93. urtetik hona bakarrik eleaniztasunerako partidu sartu dute ratioan. Finantziario ez ohikoa (dekretuak, aginduak...) zama burokratikoa, segurtasun eza...dakarte. Konprometituta zegoen LHrako modulu osoa zain dago.

Hezkuntza Saila ratioaren partidak gaurkotzeko egiten ari den ahalegina positiboa da.

## 3. Finantziario berriaren erronkak

- Irudi berriak ("perfiles educativos y organizativos") nahiz kostua definitu zazpi ataletan: euskalduntzea, eleaniztasuna, aniztasuna, zuzendaritza, tutoretza-orientazioa, TIC, kalitatea.
- Langileen lan baldintzen homologazioa burutu.
- Formazio planak garatu: euskal curriculum, ereduak...
- Familientzat eta ikasleentzat irakaskuntza publikoan dituzten zerbitzu eta baldintza berberak bermatu: Laguntza zerbitzuetan aukera berberak (garraioa, jantokia...), ratio berdinarik, konzertazio plenoa Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, inbertsioetarako dirulaguntzak...
- Normalizazio lingüistikoarekin konpromisoa: kontratazio berrietan, ez irakasleen euskalduntzea bultzatzerakoan...

## 4. Administrazioarekin egindakoa

Akordioa bat sinatu omen dute Kristau Eskolak, Partaidek eta Hezkuntza Sailak hiru konpromisoekin:

- Ekainaren bukaerarako, **itundutako irakaskuntzaren finantziarioari buruzko ikerketa bat gauzatu elkarrekin**: "estudio del costo real del puesto escolar, definición de nuevos perfiles educativos, condiciones laborales... en consideración a todos los elementos relevantes y derechos y obligaciones de los sujetos implicados".
- **Aldaketak ezarri**: "Con posterioridad a este estudio y a las conclusiones consensuadas que del mismo se deriven la Administración se compromete a disponer y garantizar los medios necesarios para lograr los objetivos expuestos...durante la presente legislatura".
- Gardentasunerako konpromisoa: "...**compromiso de transparencia** en la gestión de los recursos públicos...a cuyo efecto se establecerán los instrumentos necesarios para el adecuado seguimiento, control y verificación de dicha gestión" ★

## Zenbat balio du DBH1 DBH2rekin ekiparatzeak?

**Badakizue Hezkuntza Sailak** oraingoz ezetz esan diola DBH1eko lizentziatuen lansariak DBH 2koekin berdintzeari, nahiz eta DBH 1ean aritzen direnen ekiparazio erreala % 86,8an egon (kobratu behar zutena baino 2.898 € gutxiago)

**Jarreraren arrazoi objektiborik** ez dagoenez, begi-bistakoa da arrazoi ekonomikoak direla gai honetan nagusitzen direnak. Zenbat balio du ekiparazioak? STEE-EILASen kalkuluen arabera ia ia 30 milioi € behar ko dira EAEko itunpeko ikastetxeetan zehar sakabanaturik dauden DBH 1eko 1.681 talde ekiparatzeko. Zehazkiago 28,32 milioi € erabili behar dira DBH 1 modulua DBH 2koarekin parekatzeko, bide batez lansariak eta beste baliabideak homologatuz ★

# LO Eren Batxilergoan berrikuntzak

**O**nartu berria den LOEk batxilergoan aldatu dakarzkigu. Batxilergo berriari buruz. Errege dekretuak materia desberdinak ikasteko garaian malgutasun handiagoa onartuko du, unibertsitatearen eredu jarraituz.

Berrikuntza nagusia zera da: ikasturtea pasa ahalko da bi ikasgai baino gehiago ez gainditu arren, ikasgai kopuruaren erdia baino gehiago gainditua edukiz gero (5 edo 6), ez gainditutakoak bakarrik errepikatuz eta hurrengo ikasturteko ikasgaiekin osatuz.

Printzipioz, batxilergoko aldaketak ikasleriari mesede egiten dio, malgutasuna ekarriz, ikasleek aukerak handituz eta porrotaren mamua aldentuz, nolabait. Horretarako, hiru ikasturteko batxilergo mota bat ezartzen da, non hezkuntza maila honek ikasle bakoitzaren erritmora moldatzeko aukera emango duen.

Ikasketa maila hau uzten duten ikasleek kopurua jaiste da aldaketa honen helburua. Kopuru hau, estatu mailan, %38a da gaur egun eta 2010. urterako %20ra jaiste nahi da. Erkide autonomoan %80ak maila hau gainditzeko duela erabiliz, hemen aldaketa ez ezartzea eskatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Antzeko argudioak erabili ditu Nafarroako Gobernuak, lehenengo maila bakarrik %15ak errepikatzen duela esan baitu.

Aldaketen ezarpenak oztopo batzuk sor ditzake, ikastetxe eta ordutegiaren antolaketan funtsezko zailtasunak sortuko dituelako.

Esan behar da berrikuntza guzti hauek ezartzea ezinezkoa izango dela, beharrezkoak diren baliabideak jarri ezean: ikastetxetan irakasle eta es-

pazioen gehikuntza nabaria. Ezinbestekoak diren baliabide hauek aldatetekin batera etorriko ez direlakoan gaude.

Era berean, autonomi mailetan sakontzea ezinbestekoa da, gaur egungo autonomi mailak gaintuz.

Proposamenen beste berrikuntza batzuk badaude:

- Gaur eguneko lau batxilergoak batu egiten dira hiru batxiler izateko: Zientzia eta Teknologia, Arteak (bi aukerekin, bat orain dagoenaren antzekoa: Irudia, Arte Plastikoa eta Diseinua; beste bat berria: Musika, Dantza eta Artzertiak) eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak.
- Ikasgai berri komunak: Mundu Garaikiderako Zientziak, arlo zientifikoan, eta Filosofia eta Herriartasuna (bi ikasturteetatik bakarrik baita).
- Funtzionamendua: 8 ikasgai komunak ikasi behar dira, hauek (bi ikasturte artean) modalitateko 6 eta aukerazko batekin osatu beharko dira (eta erlijioarekin, aukeratuz gero). Modalitateko 6 ikasgaien artean beste modalitateko bat aukeratu daiteke. Nahi duenak, modalitatea indartu ahalko du aukerazko bezala modalitateko 7. ikasgai bat hartuz.
- 2008-2009ko ikasturtean indarrean sartuko litzateke, lehenengo kurtsorako.

Modalitateko ikasgaientzat oinarrizko edukietarako orduen igoera ezartzen du, asteko 90 minimo: 540 ordu LOGSE edo Giza Dekretuaren 420 orduen kontra edo LOEko 450 ★

## Afiliazio-fitxa

Herrialdea/Territorio

NA - DNI

1. Deitura - 1 <sup>er</sup> Apellido		2. Deitura - 2 <sup>o</sup> Apellido		Izena - Nombre	
<input type="text"/>		<input type="text"/>		<input type="text"/>	
Helbidea - Dirección		PK - CP	Herria - Población	Herrialdea - Provincia	
<input type="text"/>		<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Telefonoa - Telefono			e-mail		
<input type="text"/>			<input type="text"/>		
Ikastetxea - Centro			Herrialdea - Territorio		
<input type="text"/>			<input type="text"/>		
Lan-mota - Ámbito de trabajo			Kontrato-mota - Tipo de contrato		
<input type="checkbox"/> -LH eta HH-2 irakaslea – Profesor-a de Infantil y Primaria <input type="checkbox"/> -DBH 1eko irakaslea – Profesor-a 1 <sup>er</sup> Ciclo ESO <input type="checkbox"/> -BHko irakaslea – Profesor-a de Secundaria. <input type="checkbox"/> -Lan Hko irakaslea – Técnico@ FP <input type="checkbox"/> -Hezkuntza Laguntzako Espezialista-Especialista de Apoyo Educativo <input type="checkbox"/> -HH-1 Irakaslea – Profesor-a 1 <sup>er</sup> Ciclo Infantil <input type="checkbox"/> -Irakaslea – Profesor-a <input type="checkbox"/> -AZP - PAS <input type="checkbox"/> _____			<input type="checkbox"/> -Behinbetiko funtzionarioa – Funcionari@ definitiv@ <input type="checkbox"/> -Behinbehineko funtzionarioa – Funcionari@ provisional <input type="checkbox"/> -Lan kontratodun egonkorra – Contratado laboral estable <input type="checkbox"/> -Lan kontratodun Ez egonkorra – Contratad@ laboral inestable <input type="checkbox"/> -Ordezko egonkorra – Sustitut@ estable (interin@) <input type="checkbox"/> -Ordezko ezegonkorra – Sustitut@ no estable. <input type="checkbox"/> -Opositorea – Opositor-a <input type="checkbox"/> -Irakasle asoziatua – Profesor-a asociad@ <input type="checkbox"/> -Langabetua – Parad@ <input type="checkbox"/> -Eszedentzian – En excedencia <input type="checkbox"/> _____		

# EPC:

## Hiritartasunerako Hezkuntza

**E** Bak (Delors Txostena, 1996) 2010. urterako, balore demokratiko eta partaidetzaren ikaskuntza hezkuntza sistemetan sustatzea ezarri zuen helburu nagusia. Txostenaren arabera ikasleriari helarazi behar zaio "que pertenecer a una sociedad democrática es formar parte de una colectividad que se ha dotado a sí misma de un conjunto de valores y normas que expresan el consenso, la racionalidad, la libertad, el respeto a los demás y la solidaridad y que constituyen los cimientos de la misma". Moralezko kode desberdinen izateak oinarri demokratikoekin kontraesanak dituzten sinesmen, ohitura eta praktikak sortzen ditu. Hiritartasunaren garapenerako gaitasuna ematen dituzten hezkuntza baloreei lehentasuna eman behar zaie.

Gizalegezko baloreen hezkuntza sartzearen ahalginak oso ohitura zaharra dauka (erlijioaren ordeztasun, etika). Lan hori, LOGSErekin, ikastetxetako proiektuetara eta zehar-lerroen bidez ikasgai desberdinetara pasatu zen. Helburu laudagarrri hauek ez zuten isla zuzena ikastetxe gehienetan, bai baliabide bai prestakuntzaren faltagatik.

### Currículum-a

Materia honen helburua zera da: "Ikasleak bizi diren errealitate soziala ulertzen ahalbideratzea, elkarbizitza eta gatazkei aurre egitea baloretan oinarritutako zentzutasuna erabiliz. Hiritartasuna praktikatzeko irizpide propioak erabiliz. Eskubide eta betebeharren aurrean jarrera eraikitzaile, solidario eta erantzulea mantenduz."

Ardatz nagusiak: giza eskubideen begirunea eta balio konstituzionalak (gure kasuan, hemen, arazoak sor daitezke). Zehazki, genero berdintasuna, elkarbizitza, kulturartekotasuna eta partaidetzari buruz hitz egiten da.

### Egutegia

- 2007-8 ikasturterako DBHn 1. eta 3. mailan
- 2008-9 ikasturterako DBHn 2. eta 4. mailan
- 2009-2010 ikasturtean: Lehen Hezkuntzan

Lehen Hezkuntzan tutoreari dagokio gai hau ematea. Bigarren Hezkuntzan ez dago garbi oraindik zein mintegiri dagokion Filosofia edo Gizarte Zientzietako mintegiari.

Argi dagoena da Sailak beharrezkoa den prestakuntza eskaini beharko duela baldintza egokietan gaia eman ahal izateko ★

## AZPkoen TXOKOA

### SUDOKU

Ezagutzen ditudan pertsonen artean zoramena, lauki batean koadratzen duten zenbakien bila orduak eta orduak eman ditzaketanak. Hizkiekin edo marrazkiekin (haurrentzat) ere badaude. Niri ere gustatzen zaizkit, nire egunerokotasunean zenbakiekin kokoteraino banago ere. Baina kasila batean denak batera kontrolatuak izatea eskertzekoa da.

Halere diabolikoetan ez naiz oraindik aritu, diabolikoagoa baita niretzat kontabilitatea erabat ongi egotea, ordenagailuaren "rendondeoa" ordaindu edo kobratu behar dudanaekin ados egotea, zenbatekoa zehatza izatea. Horrela, bulegotik kanpo zenbakiak jolasterako dira eta besterik ez.

Oporrak hurbiltzen ari direnez bat-batean dugun aisialdia nola bete pentsatu beharra dago. Irakurri gelditu gabe, musika entzun, marraztu edo margotu, paisaia ikusten paseoan ibili, familia-rekin eta lagunekin egon, asper bat baino ez irauten duen bizitzaz gozatu. Eta baita, gure gustukoa bada, zergatik ez: sudokuak egin ★

### Maite

**STEE-EILAS** en eskutik

**Jaso ezazu** zeure etxean dohainik eta inolako konpromisorik gabe:

- ✓ *Irakaskuntza Pribatua* aldizkaria
- ✓ *Inforriak* (Informazio puntuala)

Jasoko dituzu posta arruntaz, posta elektronikoen bidez edota gure web orrira joz:

[www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org)

## KALITATE PROZESUAK. Lan egiteko beste era baten alde

***Ikastetxeetan ezartzen duten kalitate eredu oso labainkorra da eta erantzun anitzen iturria. Atal hau zabalik duzue aurrerantzean buruhaustea baino ez du sortzen gai baten inguruan eztabaidatzeko eta hausnarketa egiteko. Gaurko testua artikululuze baten zatia da, STEE-EILASeko kidea den ikastolako langile batek egina. Hurrengo zenbakietan artikululu hori eta beste zenbaiten berri izango duzue.***

**Z**uzendaritzak deitutako azkenetariko klausuroan zera entzun behar izan genuen: "etorkizunean lana ez da zikloetan edo departamentuan oinarrituko, baizik eta prozesuetan". Ikusita "prozesu" ia guztien izaera protokoloen kudeaketan datzala, aurreikus dezakegu helburu pedagogikoak (guztiontzako eta bakoitzari bere gaitasunaren arabera ikasketa maila altuenak lortzea) eta hezkuntza helburuak (kontrol pertsonala, ardura eta txertaketa soziala maila altuak lortzea) ez direla gure lanaren ildo nagusiak izango. Beharbada pentsatuko dute nahikoa izango dugula argitaletxeak edo ikastolen federakundeak zintzoki eskaintzen digutena modu akritiko eta testuinguru gabean aplikatzea, baina honek ez dauka korridoreetatik zintzilikatutako karteletan aipatzen diren Eginkizuna, Ikuspegi eta Baloreekin zer ikusirik. Ala bai?

Esan beharrik ez dago zelan prozesuetan oinarritutako lanak sendotu egiten duen hierarkizazioa eta erabakiak hartzeko zatiketa (espezializazioa). Eta honek ekartzen duen profesionalentzako alienazioa (norberaren lanarekiko kontrol eza).

Ezetz esateko ordua da. Ezetz esatea gero eta lan karga handiagoari, bere beharra ikusi ez dugun horri, eskatu ez dugun horri eta ez onura laboralik ez profesionalik ekartzen ez digun horri. Ez ezazu borondatez hartu zure taldeak komenigarria ikusten ez duen prozesuen bidezko lanik. Onartzen baduzu eska itzazu ondoko baldintzak: etengabeko ebaluaketa egiteko aukera, pertsonen eguneroko zereginetarako denborarik ez jatea, proiektua bertan behera uzteko aukera eta karguetan errotazioa. Onartzeko presionatuta sentitzen bazara hitz egin ezazu zure ordezkari sindikalekin. (Aurrerantzean erderaz jarraituko dugu egileak, berak bidali digan bezala)

Desde posiciones progresistas hay otros valores defendibles: oportunidades educativas de acuerdo con las peculiaridades de los alumnos, apoyos complementarios para los más desfavorecidos, democratización de la educación, o la emancipación social y personal. En particular:

**1) Ciudadanos que participan, en lugar de clientes (consumidores).** Porque la escuela pública no quiere quedar sometida a que los padres «voten con los pies» (lugar a donde deciden que vayan sus hijos), tiene que dar la «voz» a la comunidad local, en espacios de «esferas públicas democráticas», que ha dicho Giroux, potenciando la participación y protagonismo activo de la ciudadanía.



**2) Gestión democrática, en lugar de líderes «manager».** Es preciso oponerse a que «la calidad total reposa sobre lo que desde una perspectiva jerárquica constituye su vértice superior, esto es, la Dirección» (López Rupérez, 1994: 50). Este tipo de líderes, como ha dicho Hargreaves, constituyen pobres modelos para el cambio democrático.

**3) En lugar de «calidad de la educación», debemos recuperar la idea de tener «buenas escuelas».** De siempre hemos entendido, entre otros caracteres, que son centros educativos dotados de medios materiales y personales suficientes, que proporcionan amplias experiencias educativas a los alumnos, se preocupan por conseguir altos niveles de aprendizaje, han logrado implicar a la comunidad, y promueven el desarrollo del propio centro y de su profesorado.

**4) Además, en cuanto estrategia de gestión, contamos como alternativas basadas en toda la tradición de tomar como foco de innovación el centro escolar como organización, en un trabajo colaboración, no jerárquico (Bolívar, 1999).**

Nosotros por nuestra parte estamos de acuerdo con Álvaro Marchesi y Elena Martín en la una definición de calidad que ofrecen y os invitamos a formular la vuestra propia: "Un centro educativo de calidad es aquel que potencia el desarrollo de las capacidades cognitivas, sociales, afectivas, estéticas y morales de los alumnos, contribuye a la participación y a la satisfacción de la comunidad educativa, promueve el desarrollo profesional de los docentes e influye con su oferta educativa en su entorno social. Un centro educativo de calidad tienen en cuenta las características de sus alumnos y de su medio social. Un sistema educativo de calidad favorece el funcionamiento de este tipo de centros y apoya especialmente a aquellos que escolarizan a alumnos con necesidades educativas especiales o están situados en zonas social o culturalmente desfavorecidas" ★

# berriak

## Zuzendaritza-lanaren osagarriak: publikoan baino hobe

**EAEko irakaskuntza** araututako hitzarmenaren sinadurak, beste gauzen artean, ezarri ditu. Zuzendaritza, ikasketaburutzak edo departamentua buruzagitzarako plusak. Bitxiena da –taulen arabera– lehen hezkuntzako itunpeko ikastetxeetako zuzendariak irakaskuntza publikokoek baino %4 gehiago kobratzen duela eta bigarren hezkuntzakoak baino %3.4 gehiago. Hezkuntza Sailak, irakaskuntza publikoko mahai sektorialean, kargu hauentzat soldatigoera handiagoa eskaini duela ezin dugu ahaztu. Hurrengo taulan urteko desberdintasuna ikusten da ★

	Pribatua	Publikoa	Aldea
<b>L. Hezkun.</b>	5.497,24	4.583,16	<b>914,08</b>
<b>B. Hezkun.</b>	8.111,45	5.592,84	<b>2.518,61</b>

## Pribatuetako zerbitzuengatik baremazio berria

**Epai judizial baten ondorioz**, itunpeko ikastetxe pribatuetan egindako zerbitzuengatik orain arte ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko kandidatuen zerrendetako kudeaketaren prozesuan emandako balorazioa aldatzeko behartu dute Hezkuntza Saila. Hemendik aurrera, zerbitzu hauek ikastetxe publikoetan egindakoen 1/3a balioko dute, lehen 1/12a balio zuten bitartean. Gainera, neurri honek atzeraeraginezko ondorioa du. Horrek, orain arte erabili diren zerrendetan benetako iskanbila sortuko du. Hezkuntza Sailak –nahiz eta inork ez behartu– erlijioiko irakasleei baremo berria ezartzeko aprobetxatu du, baita atzeraeraginezko ondorioz ★

## Euskal Curriculumaren aurkezpena

**Joan den maiatzaren 9an**, Hezkuntza Sailburuak Euskal Curriculum deitutako proposamena aurkeztu zuen. Proposamen honek, dekretu moduan, derrigorrezko hezkuntzaren, 6 urtetik 16 urtera arte, gutxieneko edukiak arautuko ditu. Hala ere, proiektu hau Gutxieneko Dekretua (helburuak eta gaitasunak) baino gehiago da eta LOEk ezartzen duen bezala –Autonomi Erkidego bakoitzari dagokion curriculumaren %45a garatzen du. Dokumentu honetan, autonomia eredu, ebaluaketa, aniztasuna, ordutegi eta egutegiak, hizkuntz proiektuak, eta abarrei buruz hitz egiten da ere. Hezkuntza Sailak ez du onartu, orain arte, sindikatuen partaidetza prozesuan, hezkuntzako esparruan esateko asko daukagun arren. Bere jarrera aldatzea eta gure iritziak kontuan hartzea espero dugu, epeak ikusita –Hezkuntza Sailak irailaren batetik nahi du ezarri–.oso baikorrak ezin izan gaitzke ere★

## Lansarien berdintzea: atzean geratzen gara

**Orain dela gutxi sinatu dira** Andaluziako irakaskuntza arautuan lansarien berdintzearen taulak. Irakaskuntza publikoarekin "lansarien analogiaren osagarria" ezarri da. Horren arabera lehen hezkuntzako irakasleak berdintzearen %98,73an jartzen dira, eta bigarren hezkuntzakoak %97,80ean. Hemen, teorikoki, %95ean gaude. Lansarien berdintzearen esparruan, atzean geratzen ari gara Estatuko beste erkidegoekin aldentuta ★

## Gasteizen Hezkuntza zikloak euskeraz

**Ezaguna da lanbide heziketaren esparruan** euskeraz egin ahal izateko dauden arazoak, are gehiago Arabako lurraldeari bagagozkio. Hutsune hori bete eta normalizazio linguistikoa bultzatzeko asmoz 2007-8 ikasturterako eskaintza handitu egingo du. Gasteizko *Diocesan* ikastetxeak maila horietan. Diocesan ikastetxeak eskainiko dituen ziklo berriak Mekanizazioa eta Administrazio kudeaketa dira (erdi mailakoak) Beste aldetik, Administrazioa eta Finantzak (goi mailakoa) ziklotik aurrean lehenengo promozioa irtengo da ★

# boletina

**EHHA 47zk 2007ko martxoak 7**

**EBAZPENA:** Lanbide Heziketako ikastetxe integraren sareko ikastetxe pribatuetan eta tokiko korporazioen titulartasuneko ikastetxe publikoetan, jarduerak egiteko diru-laguntzak ematen dituen.

**EHHA 48zk 2007ko martxoak 8**

**AGINDUA:** Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko espezializazio-ikastaro batzuen ezaugarriak eta gainditu dituztenen zerrenda jakinarazten duena

**EHHA 54zk 2007ko martxoak 16**

**AGINDUA:** diru-laguntzak itundutako ikastetxetarako, 2006-2007 ikasturtean Lehen eta Bigarren Hezkuntzan hasi berri diren ikasle etorkinentzako hizkuntz errefortzuko programak egin ditzaten.

**EHHA 56zk 2007ko martxoak 20**

**AGINDUA:** 2007-2008rako eranskin hauei onarpena eta publizitatea ematen diena: heziketa-zikloen planifikazioa aldatzeko eskabide-orriak eta itundu beharreko gela kopurua finkatzeko.

**EHHA 62zk 2007ko martxoak 28**

**AGINDUA:** Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko irakasleek egindako espezializazio-ikastaroa hori gainditu dutenen zerrenda argitaratzen dituen (ikastaro hori Vic-eko unibertsitateak eman zuen).

**EHHA 64zk 2007ko martxoak 30**

**AGINDUA:** iraunkortasunerako hezkuntza-programak garatzeko ikastetxeei eman beharreko diru laguntzak arautzen dituen.

**EHHA 67zk 2007ko apirilak 4**

**AGINDUA,** Irale programaren baitan 2007. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako laguntzetarako dei egiten duena.

**EHHA 68zk 2007ko apirilak 10**

**EBAZPENA,** EAEko itunpeko ikastetxe pribatuei emandako diru-laguntzak argitaratzen dituen. Di-

ru-laguntza horiek, ordainketa eskuordetuaren menpekoak diren eta erretiro partziala hartu duten langileei lanaldi partzialeko lan-kontratuak egiteko emango dira.

**EHHA 75zk 2007ko apirilak 19**

**AGINDUA** diru-laguntzetarako deia egiten duena, L.H.ko heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2007-2008ean.

**EHHA 76zk 2007ko apirilak 20**

**AGINDUA,** ikastetxe itunduetan Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako maila dagokienez eskabideak aurkezteko eta onartzeko epeak zehazten dira, eta ikasleak onartzeko jarraibideak onartzen dira

**EHHA 82zk 2007ko apirilak 30**

**AGINDUA.** Dekretu horren bitartez, bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzaren inguruko jarduerak gauzatzeko diru-laguntzak arautu ziren.

**EHHA 83zk 2007ko maiatzak 2**

**AGINDUA** Lanbide Heziketako Euskal Planaren esparruan jarduerak garatzeko, Planak berak aurreikusitako L.B. etako ikastetxe integraren sareko ikastetxe pribatuetan eta tokiko korporazioen titulartasuneko ikastetxe publikoetan.

**EHHA 85zk 2007ko maiatzak 4**

**AGINDUA,** laguntzetarako deia egiten duena, Hezkuntza Sailaren mendeko herri-ikastetxeetako eta itunpeko ikastetxeetako guraso-elkarteek, eta herri-ikastetxeetako Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteek 2007-2008 ikasturtean egin beharreko jarduerak finantzatzeko.

**AGINDUA,** Kooperatiba-federazioek eta irakaskuntzako kooperatibek jarduerak finantzatzeko diru-laguntzetarako deia.

**EHHA 85zk 2007ko maiatzak 4**

**AGINDUA** itunpeko ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioek eta konfederazioek finantzatzeko diru-laguntzetarako deia ★

## Lagundu, mesedez!

**Ikusiko** zenuen bezala, aurreko zebakia bidali genizunean, aldezkarri bakoitzeko bi ale bidaliko dizuegu aurrerantzean. Bat zuretzat eta bigarrena paperontzia amaitu ez dadin eskatu nahi dizugu: lankide bati pasa, irakaslen gelan utzi, kartelegian eslegi... Mila esker zure laguntzagatik! ★

